BESTE BATZUK 7 OTROS

TXINGUDIKO ZERBITZUAK - SERVICIOS DE TXINGUDI, S.A.

Iragarkia

Sozietateko Administrazio Batzordeak, 2025eko abenduaren 9an egindako bileran, onartu zituen «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.» tokiko merkataritza sozietaterako Hornidura eta Saneamenduko Instalazioak Ustiatzeko eta Mantentzeko Arloko Arduradun bat aukeratzeko deialdia eta oinarriak.

Irun, 2026ko urtarrilaren 8a.—Leire Zubitur Canflanca, zuzendari-gerentea. (86)

«Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.» merkataritza sozietateko hornidura eta saneamenduko instalazioak ustiatzeko eta mantentzeko arloko arduraduna mugagabea errelebo kontratuaren bidez aukeratzeko prozedura arautuko duten oinarriak.

I. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen helburua da Mancomunidad de Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak osoki partaidetua den «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.» merkataritza sozietateko Antolaketa eta Hornidura eta saneamenduko instalazioak ustiatzeko eta mantentzeko Arloko Arduradun bat aukeratzeko prozedura arautzea.

Kontratazio honetan lan kontratu bat egingo da, errelebo kontratu modalitatean, mugagabea eta lanaldi osokoa. Errelebatu behar duen pertsonak erretiro partziala hartzen duen aldi berean sinatuko da kontratu hori.

Eta hori guztia nahitaez gainditu beharko duen sei hilabeteko proba aldiaren kalterik gabe.

Interesa duten pertsona guztiak aurkeztu ahal izango dira deialdi honetara, II. oinarrian zehaztutako baldintzak betetzea beste mugarik izan gabe.

Hornidura eta Saneamendu Instalazioen Ustiapen eta Mantentze Arloaren xedea da, besteak beste, ur-bilketatik ur-biltegietara ura eskuragarri egongo dela bermatzea hornidura-eremuan, eta hondakin-urak hodi-biltzailetik araztegiraino jaso eta bideratuko direla bermatzea saneamendu-eremuan. Horretarako, bitarteko instalazioen funtzionamendu-baldintzak ezarriko dira, eta instalazio horien mantentze-lanak egingo direla bermatuko da, indarrean dagoen legeria betez, bai eta horniduraren esparruko barne-kalitatea ziurtatzeko baldintzak ere, eta hondakin-urak saneamenduko isurketa-baimena betez araztu ahal izateko.

Era berean, arloan hobekuntzak sustatzen dira instalazioetan, zerbitzu publiko eraginkorragoa emateko helburuarekin.

«Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.» sozietateko Hornidura eta saneamenduko instalazioak ustiatzeko eta mantentzeko Arloko Arduraduna postuaren ezaugarriak:

* Postua: «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.» sozietateko Hornidura eta Saneamendu Instalazioen Ustiapen eta Mantentze Arloko Unitate Operatiboko burua.

TXINGUDIKO ZERBITZUAK - SERVICIOS DE TXINGUDI, S.A.

Anuncio

El Consejo de Administración de la sociedad, en sesión celebrada el día 9 de diciembre de 2025 acordó aprobar la convocatoria y bases para la selección y contratación de un/a Jefe/a de Unidad Operativa del Área de Explotación y Mantenimiento de Instalaciones de Abastecimiento y Saneamiento de la sociedad mercantil local «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.».

Irun, a 8 de enero de 2026.—La directora-gerente, Leire Zubitur Canflanca. (86)

Bases reguladoras de selección de un/a jefe/a unidad operativa del área de explotación y mantenimiento de instalaciones de abastecimiento y saneamiento de la sociedad mercantil local «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.», mediante contrato de relevo de carácter indefinido.

I. Objeto de la convocatoria.

Es objeto de estas Bases regular el proceso de selección de un/a Jefe/a de Unidad Operativa del Área Explotación y Mantenimiento de Instalaciones de Abastecimiento y Saneamiento de la sociedad mercantil local «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.», participada íntegramente por la Mancomunidad de Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea.

La contratación se realizará mediante la formalización de contrato laboral, en la modalidad de contrato de relevo a jornada completa e indefinido, que se suscribirá de forma paralela al acceso a la jubilación parcial de la persona que vaya a relevar.

Y todo ello, sin perjuicio, a que la persona contratada deberá superar necesariamente un periodo de prueba de seis meses.

A la convocatoria podrán presentarse todas aquellas personas interesadas, sin más limitación que la de cumplir con los requisitos y condiciones establecidos en la Base II.

La misión del área de Explotación y Mantenimiento de Instalaciones de Abastecimiento y Saneamiento consiste, entre otros, en garantizar la disponibilidad de agua desde su captación hasta los depósitos de agua en el ámbito del Abastecimiento y en garantizar la recogida y conducción de las aguas residuales desde el interceptor hasta la depuradora, en el ámbito del Saneamiento, fijando las condiciones de funcionamiento de las instalaciones intermedias y garantizando la realización del mantenimiento de las mismas, cumpliendo con la legislación vigente, además de las condiciones de aseguramiento de la calidad interna en el ámbito del abastecimiento y con el fin de depurar las aguas residuales cumpliendo con la autorización de vertido en saneamiento.

Asimismo, se promueven en el área mejoras en las instalaciones con la finalidad de prestar un servicio público más eficiente.

Características del puesto de trabajo de Jefe/a de Unidad Operativa del Área Explotación y Mantenimiento de Instalaciones de Abastecimiento y Saneamiento de «Servicios de Txingudi- Txingudiko Zerbitzuak, S.A.»:

* Puesto: Jefe/a de Unidad Operativa del Área de Explotación y Mantenimiento de Instalaciones de Abastecimiento y Saneamiento de la sociedad «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.».

EK\CV GAO-I-2026-00086

* Titulazioa: Ingeniaritzako gradua, ingeniaritza teknikoa edo Ingeniaritzako goi-mailako unibertsitate-titulua, espezialitate hauetan:

— Industria Ingeniaritza.

— Ingeniaritza Mekanikoa.

— Industria Elektronikako eta Automatikako Ingeniaritza.

— Ingeniaritza Elektrikoa.

— Teknologien Ingeniaritza.

— Energia Ingeniaritza.

— Ingeniaritza Kimikoa.

— Industria Kimika Ingeniaritza.

Balorazio Batzordearen iritziz eskainitako lanposturako baliokidea den beste edozein.

* Noren mende: Arloko arduraduna denez, zuzendari kudeatzailearen mende egongo da zuzenean.

* Euskararen ezagutza egiaztatua: B2 maila. II. oinarriko f) letran aurreikusitakoaren arabera.

* Gidabaimena: B mota.

* Ordainsaria: Urteko 40.316,22 € gordineko oinarrizko soldata, dedikazio bereziko osagarria, lanpostuaren eskakizunen eta sektore publikoko antzinatasunaren arabera, % 20ra arte, eta sektore publikoko antzinatasuna.

* Lanaldia egiteko modua: ordutegi malgua, urteko egutegiaren arabera.

* Lanpostuaren egiteko nagusiak:

Arloko arduradunaren zuzendaritzapean, eta gainerako arloekin lankidetza estuan, honako hauek izango dira egin beharreko lanpostuaren funtzio orokorrak:

— Izaera operatiboko zerbitzu espezializatuen prestazioa kudeatzea.

— Instalazioen arloko Unitate Operatiboaren funtzionamendua eta jarduera zuzentzea, planifikatzea, koordinatzea, bultzatzea eta gainbegiratzea, zuzeneko burutzaren mende.

— Unitatearen eremuan egin beharreko jarduerei lehentasuna ematea.

— Pertsonak, lan-kargen banaketa egokia eta esleitutako baliabide materialak, ekonomikoak eta logistikoak behar bezala kudeatzea.

— Unitatearen berezko gaiei dagozkien zeregin operatiboak kontrolatu, koordinatu, gauzatu eta kudeatzea.

— Unitate operatiboko langileak ebaluatzea, eta produktibitate-osagarria banatzeko proposamena egitea, hala dagokionean.

— Unitatean dauden langileek oporrei, baimenei, eskubide ekonomikoen aitorpenari, antzeko gaiei eta abarri buruz egindako edozein eskaeraren berri ematea, bai eta fitxaketen jarraipena eta kontrola egitea ere.

— Zehazten diren hobekuntza-ekintzak gauzatzea eta bultzatzea.

Egindako jarduerei buruzko memoriak edo txostenak egitea: sarea mantentzeko eta ustiatzeko txostenak.

— Bere ardurapeko langileak kudeatzea. Besteak beste, bere ardurapeko Langileen Txanden Egutegia egitea, horren jarraipena egitea, bajak ordezkatzea, etab.

— Agiri teknikoak eta administratiboak kontrolatzea, enpresa laguntzaileekin eta/edo emakidadunekin egindako kontratuen jarraipena eta kontrola egiteko, eta horiek betetzen direla zaintzea.

* Titulación: Grado en Ingeniería, ingeniería técnica o titulación universitaria superior de Ingeniería, en las siguientes especialidades:

— Ingeniería Industrial.

— Ingeniería Mecánica.

— Ingeniería Electrónica Industrial y Automática.

— Ingeniería Eléctrica.

— Ingeniería de Tecnologías.

— Ingeniería de Energía.

— Ingeniería Química.

— Ingeniería Química industrial.

Cualquier otra que a juicio de la Comisión de Valoración sea equivalente para el puesto de trabajo ofertado.

* Dependencia: Jefe de la Unidad Técnica de Instalaciones.

* Conocimientos acreditados de euskera: Nivel B2, según lo previsto en el apartado f) de la Base II.

* Carnet de conducir: Tipo B.

* Retribución: Salario Base de 40.316,22 € brutos anuales, complemento de dedicación especial a determinar según requerimientos del puesto hasta el 20 % y antigüedad en el sector público.

* Forma de realización de jornada: horario flexible según calendario anual.

* Cometidos generales del puesto de trabajo:

Bajo la Dirección del responsable de área, y en estrecha colaboración con las restantes Áreas, las Funciones Generales del puesto a acometer serán:

— Gestionar la prestación de servicios especializados de carácter operativo.

— Dirigir, planificar, coordinar, impulsar, y supervisar el funcionamiento y la actividad de la Unidad Operativa del área de Instalaciones, bajo la dependencia de su jefatura directa.

— Priorizar las actuaciones a realizar en el ámbito de la unidad.

— Gestionar de manera adecuada las personas, la distribución adecuada de sus cargas de trabajo, y los recursos materiales, económicos y logísticos asignados.

— Controlar, coordinar, ejecutar y gestionar las tareas operativas correspondientes a las materias propias de la unidad.

— Evaluar el personal integrado en la unidad operativa, y formular la propuesta de reparto del complemento de productividad, cuando corresponda.

— Informar cualquier solicitud del personal integrado en la unidad respecto sobre vacaciones, permisos, autorizaciones, reconocimiento de derechos económicos de cualquier tipo y cuestiones similares, etc., así como realizar el seguimiento y control de fichajes.

— Ejecutar e impulsar las acciones de mejora que se determinen.

— Elaborar memorias o informes de las actividades realizadas: informes de mantenimiento y explotación de la Red en Alta.

— Gestión del personal a su cargo. Entre otros, confección de Calendario de Turnos del Personal a su cargo, seguimiento del mismo, sustituciones de bajas, etc.

— Controlar los pliegos técnicos y administrativos, para el seguimiento y control de los contratos con empresas colaboradoras y/o concesionarias y velar por el cumplimiento de los mismos.

EK\CV GAO-I-2026-00086

— Txingudiko Zerbitzuen funtzionamendua hobetzeko jarduketak proposatzea eta sustatzea, edozein arlotan, haren funtzionamendua hobetzeko.

— Eskaintza ekonomiko-teknikoak aztertzea eta baloratzea, bere lan-eremuaren barruan eta Unitate Teknikoaren Burutzak gainbegiratuta.

— Produkzio-prozesuetako aldaketa teknologikoek eta antolamendukoek sortutako lan-egoera berrietara egokitzea, eta, horretarako, ezagutzak eguneratzea, bizialdi osoko ikaskuntzarako dauden baliabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilita.

— Bere jarduerarekin lotutako gorabeherak erantzukizunez konpontzea, eta horien sorburuak identifikatzea, bere eskumenaren eta autonomiaren esparruan.

— Produkzio-prozesuan laneko arriskuen prebentziorako eta ingurumen-babeserako protokoloak eta neurriak aplikatzea, pertsonei, lan-inguruneari eta ingurumenari kalterik ez egiteko.

— Hala dagokionean, prebentzio-baliabide gisa jardutea.

— Prestakuntza-programetan parte hartzea, erakundearen jarduerari buruzko ezagutza globala lortzeko.

— Bere eremuko arau teknikoak behar bezala aplikatzen direla gainbegiratzea.

— Indarrean dagoen araudia betetzeko eskatzen den dokumentazio teknikoa eta administratiboa interpretatzea.

— Lanaldi arruntetik kanpo prestasuna ematea, hitzarmenean arautzen denaren eta antolakuntzak agintzen duenaren arabera.

— Erreklutamendu-deira joanda sor daitezkeen larrialdi-egoerei erantzuteko prest egotea, antolaketa-arduradunak hala eskatzen dionean.

— Kalitatea bermatzeko sistemaren barruan bere kargura ezarritako eskakizun guztiak betetzea, halakorik dagoenean.

— Larrialdietako koordinatzailearen eginkizunez edo Larrialdi Planean edo beste plan batzuetan ezarritako beste eginkizun batzuez arduratzea.

— Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen barruan bere kargura ezarritako eskakizun guztiak betetzea eta ingurumen-legeria betetzea.

— Datuak Babesteko Legearen barruan bere kargura ezarritako eskakizun guztiak betetzea.

— Unitate Teknikoaren Burutzari laguntza ematea.

— Buruzagitza hori bete dezakeen oinarrizko lanpostuaren berezko eginkizunak betetzea.

— Hierarkian gorago dagoenak esleitzen dion antzeko beste edozein zeregin egitea.

* Funtzio espezifikoak:

— Hornidura-ur osoak bilketatik ur-biltegietara edo hondakinurak hodi biltzailetik araztegira eramateko eta biltzeko prozesua kontrolatzea, ingurune hartzailera isurtzea saihesteko.

— Instalazioen tratamendu- eta arazketa-prozesuen (EUTE/EDAR/EBAR...) funtzionamendu egokia kontrolatzea, ekipo elektromekanikoen eta uraren kalitatearen datuak eta parametroak gainbegiratuz, edateko uren araztegian uraren tratamendurako eta kalitaterako eskatzen diren kalitate-estandarrak betetzen direla bermatzeko, edo ingurumen-estandarrak betetzen direla bermatzeko, ibilgura edo itsasora gainezkabideak edo hondakin-uren araztegia isuriz gero.

— Ustiapen-baldintzak finkatzea eta zuzentzea, funtzionamendu-irizpideak ezarritako balioen barruan mantentzeko, eta horiek definitzen laguntzea ustiategiaren hasieran, Txingudiko Zerbi-

— Proponer y promover actuaciones tendentes a mejorar el funcionamiento de Servicios de Txingudi, en cualquiera de sus áreas, para mejorar el funcionamiento de la misma.

— Analizar y valorar las ofertas económico-técnicas dentro de su ámbito de trabajo y bajo la supervisión de la Jefatura de Unidad Técnica.

— Adaptarse a las nuevas situaciones laborales originadas por cambios tecnológicos y organizativos en los procesos productivos, actualizando sus conocimientos, utilizando los recursos existentes para el aprendizaje a lo largo de la vida y las tecnologías de la Información y la comunicación.

— Resolver de forma responsable las incidencias relativas a su actividad, identificando las causas que las provocan, dentro del ámbito de su competencia y autonomía.

— Aplicar los protocolos y las medidas preventivas de riesgos laborales y protección ambiental durante el proceso productivo, para evitar daños en las personas y en el entorno laboral y ambiental.

— Actuar como Recurso Preventivo cuando proceda.

— Participar en programas formativos para lograr un conocimiento global de la actividad de la organización.

— Supervisar la correcta aplicación de las normas técnicas de su ámbito.

— Interpretar la documentación técnica y administrativa requerida para cumplir con la reglamentación vigente.

— Prestar disponibilidad fuera de la jornada laboral ordinaria según se regula en el convenio y se le encomiende desde la organización.

— Estar en disposición de atender las situaciones de emergencia que puedan surgir acudiendo a la llamada de reclutamiento cuando por su responsable organizativo le sea requerido.

— Cumplir con todos los requerimientos, establecidos a su cargo, dentro del sistema de aseguramiento de la calidad, cuando se disponga.

— Responsabilizarse de las funciones del Coordinador de Emergencias u otras funciones establecidas en el Plan de Emergencias u otros planes.

— Cumplir con todos los requerimientos, establecidos a su cargo, dentro de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales y cumplir con la legislación ambiental.

— Cumplir con todos los requerimientos, establecidos a su cargo, dentro de la Ley de Protección de Datos.

— Prestar apoyo a la Jefatura de Unidad Técnica.

— Ejercer las funciones propias del puesto base susceptible de poder ocupar dicha jefatura.

— Realizar cualquier otra tarea de carácter similar que le sea asignada por parte de su superior jerárquico.

* Funciones específicas:

— Controlar el proceso de la recogida y conducción de las aguas brutas de abastecimiento desde la captación hasta los depósitos de agua o las aguas residuales desde el interceptor hasta la depuradora para evitar vertidos al medio receptor.

— Controlar el buen funcionamiento de los procesos de tratamiento y depuración de las Instalaciones (ETAP/EDAR/EBAR...) mediante la supervisión de los datos y parámetros de los equipos electromecánicos y de calidad del agua para garantizar el cumplimiento de los estándares de calidad exigidos para el tratamiento y calidad de agua en la potabilizadora o el cumplimiento con los estándares medioambientales para el caso de vertidos a cauce o mar de alivios o depuradora de agua residual.

— Fijar y dirigir las condiciones de explotación para mantener los criterios de funcionamiento dentro de los valores establecidos, ayudando a su definición al inicio de la explotación para cumplir,

EK\CV GAO-I-2026-00086

tzuen barne-kalitateari buruzko legeria eta baldintzak betetzeko, ur-hornidurari dagokionez, edo ezarritako isurketa-baimena eta saneamenduari dagokionez antolakundean ezarritako helburuak betetzeko.

— Hornidurako edo saneamenduko ekipo elektromekanikoen mantentze prebentiboa eta zuzentzailea zuzentzea, tratamendu-prozesuen garapen egokia bermatzeko.

— HUAko ekipo elektro-mekanikoen ustiapen-lanak eta EUTE instalazioko prozesu operatiboak gainbegiratzea, mantentze-lanen eta ustiapenaren eskuliburuak betetzen diren kontuan hartuta, bere ardurapeko instalazioetan, eta tratamendu-ekipoak eraginkortasun handiagora bideratutako aldaketak proposatzea, bai eta araztegi-beharretara egokitzea ere.

— Bertako langileen jarduerak zuzendu, antolatu eta kontrolatzea, eta langileek egindako lanetan erabilitako lanak eta orduak kontrolatzea, modu eraginkorrean kudeatu ahal izateko.

— Azpikontratatutako lanak eta matxuren konponketak koordinatzea eta, hala badagokio, zuzentzea, Txingudiko Zerbitzuen eskakizunetara egokitu daitezen.

— Arloko giza taldea kudeatzea helburu komunak eta partekatuak lortzeko, talde parte-hartzaileetan lan egitea sustatuz, norbanakoen gaitasunak optimizatzen eta eskura dauden baliabideak hobeto aprobetxatzen saiatzeko.

— Lehenik eta behin, altako ur-hornidurari edo saneamenduari buruzko gorabeherei erantzutea, eta, beharrezkoa izanez gero, egin beharreko lanak antolatzea.

— Hondakin-ura arazteko edo edateko ura arazteko prozesuetan sortzen diren arazoak konpontzea, instalazioko protokoloen arabera, eta arloko arduradunari gorabeheraren berri ematea.

— Arloko arduradunei edo arduradunei egiten ari diren lanetan laguntzea eta laguntza ematea, atal bakoitzeko ofizialek beren lanpostuari esleitutako zereginak eraginkortasunez eta efizientziaz egin ditzaten.

— Uraren Kalitateko Laborategiekiko koordinazio egokia bermatzea, bai HUAn, bai EUTEn, zerbitzua ematean uraren kalitatea ziurtatzeko.

— Ubide publikora egiten diren hondakin-uren isurketen anomaliak edo EUTEko, andeletako edo ponpaketa-estazioetako uren kalitate-arazoak artatzea eta kudeatzea, uren kalitatearen arduradunarekin koordinatuta, eta arloko arduradunari jakinaraztea.

— Hornidura-sarean edo ur-biltegietan, edo hondakin-uren sarean, euri-uren sarean edo sare bateratuan gertatzen diren anomaliak eta gorabeherak artatzea, lantzea eta konpontzea, banaketa-sareen arloarekin batera.

— Aktiboen, txostenen, datu-iturrien eta ekipo elektrikoen (SCADA barne) erabilgarritasuna eta fidagarritasuna ziurtatzea, instalazioko prozesu operatiboetan egon daitezkeen arazoak identifikatu ahal izateko.

— Edateko uraren instalazioa kontserbatzeko, depositua garbitzeko eta mantentzeko jarduerak kudeatzea eta gainbegiratzea, hornidura-instalazioetako arduraduna ez dagoenean.

— Plantaren eta biltegiaren funtzionamendurako beharrezko baliabideen erosketak kudeatzea, dagokion kontratazio-eskaera egin eta beharrezko eskaintzak eskatu ondoren.

— Ura arazteko eta/edo edangarri bihurtzeko prozesuetan eta instalazioaren funtzionamenduan eraginkortasuna hobetzeko azterlanetan laguntzea.

o bien, la legislación y condiciones de calidad internos de Servicios de Txingudi en cuanto al abastecimiento de agua o para cumplir con la autorización de vertido establecida y con los objetivos marcados en la organización en lo que a saneamiento se refiere.

— Dirigir el mantenimiento preventivo y correctivo de los equipos electromecánicos del abastecimiento o saneamiento para garantizar el buen desarrollo de los procesos de tratamiento.

— Supervisar las labores de explotación de los equipos electro-mecánicos de la EDAR y los procesos operativos de la planta ETAP según el cumplimiento de los manuales de mantenimiento y explotación, en las instalaciones a su cargo y proponer las modificaciones tendentes a una mayor eficiencia, y adecuación de los equipos de tratamiento a las necesidades depurativas.

— Dirigir, organizar y controlar las actuaciones del personal propio, llevando un control de los trabajos y horas empleadas en las diferentes tareas efectuadas por su personal para poder gestionarlos de forma eficiente.

— Coordinar y dirigir, en su caso, los trabajos subcontratados y las reparaciones de averías que se produzcan para que se adecuen a los requerimiento de Servicios de Txingudi.

— Gestionar el equipo humano del área para la consecución de los objetivos comunes y compartidos, fomentando el trabajo en equipos participativos para tratar de optimizar las capacidades individuales y el mejor aprovechamiento de los recursos disponibles.

— Atender, en primera instancia, las incidencias referentes al suministro de agua o saneamiento en alta, y organizar, si fuera necesario, los trabajos a ejecutar.

— Resolver los problemas que surjan en los procesos de depuración del agua residual o potabilización del agua potable según los protocolos de planta e informar al responsable de área sobre la incidencia.

— Apoyar y dar soporte a capataces o encargados del área en los trabajos que se están efectuando para que los oficiales de cada sección realicen las tareas asignadas a su puesto de forma eficaz y eficiente.

— Garantizar la correcta coordinación con los Laboratorios de Calidad de Agua tanto en la EDAR como en la ETAP para asegurar la calidad del agua en la prestación del servicio.

— Atender y gestionar las anomalías en los vertidos de agua residual al cauce público o problemas de calidad de las aguas de la ETAP o depósitos o Estaciones de Bombeo en coordinación con la persona responsable de calidad de las aguas y comunicarlo al Responsable de área.

— Atender, trabajar y solucionar las anomalías e incidencias en la red de abastecimiento o depósitos de agua, o la red de agua residual, pluvial o unitaria conjuntamente con el área de Redes de Distribución.

— Asegurar la disponibilidad y confiabilidad de los activos, informes, fuentes de datos y equipos eléctricos (incluido SCADA) para poder identificar posibles problemas en los procesos operativos de la planta.

— Gestionar y supervisión de las actividades de conservación, limpieza de depósitos y mantenimiento de la planta de agua potable en ausencia del encargado de Instalaciones de Abastecimiento.

— Gestionar las compras de los recursos necesarios para el funcionamiento de la planta y del almacén una vez realizada la petición de contratación correspondiente y solicitadas las ofertas necesarias.

— Colaborar en los estudios de mejoras de eficiencia en los procesos de depuración y/o potabilización de agua y en el funcionamiento de la planta.

EK\CV GAO-I-2026-00086

II. Hautagaiek bete beharreko baldintzak.

Honako baldintza hauek bete beharko dira onartuak izateko eta, hala behar badu, aukeratze prozesuan parte hartu ahal izateko:

a) Hiritartasuna: Hiritartasun espainiarra, edo Europako Batasuneko kide den beste edozein Estatukoa izatea, edo Europako Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako Nazioarteko Itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplika daitekeen Estatu bateko herritartasuna izatea.

Era berean, espainiarren eta Europako Batasuneko beste Estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude.

b) Titulazioa: I. oinarrian eskatutako titulazioren bat izatea, edo hura lortzeko eskubideak ordainduak izatea. Atzerriko titulazioen kasuan, haien homologazioa egiaztatuko duen agiria eduki beharko dute.

c) Gidabaimena: «B» motako gidabaimena behar da indarrean.

d) Behar diren trebetasunak:

— Lidergorako, talde-lanerako eta komunikaziorako trebetasunak: talde bateko liderra denez, funtsezkoa da langileak motibatzea helburuak lortzeko, horiek definitzen jakitea, komunikatzea (ulermena bermatzeko) eta baterako lana sustatzea, sinergiak sortuz.

— Pentsamendu analitikoa eta erabakitzailea: negozio-estrategiak aztertzeko eta teknologiara eramateko gaitasuna izatea, emaitzak bultzatuko dituzten irtenbideak eskainiz. Gainera, arazo potentzialak identifikatzeko eta konponbiderako proposamen zehatzak aurkezteko gai da.

— Trebetasun teknikoak eta kudeaketakoak: trebetasunak behar dira eraginkortasun operatiboari eta prozesuen optimizazioari, proiektuen planifikazioari, antolaketari, koordinazioari, gauzatzeari eta kontrolari, esleitutako aurrekontuaren kudeaketari eta helburuak betetzeari dagokienez.

— Alderdientzat onuragarriak diren akordioak lortzeko negoziazio-gaitasuna, konbentzimenduaren bidez, hainbat gatazkaren aurrean irtenbideak lortuz eta epe luzera akordio iraunkorrak sortzea lortuz.

e) Euskara: egiaztatu beharko da Europako esparruko B2 mailako titulua edo baliokidea dutela, edo maila horri dagozkion ulermen-, mintzamen- eta idazketa-mailak dituztela, prozesu honen esparruan horretarako egingo den proba gainditutz.

f) Gaitasun funtzionala: Lanpostuak bere dituen lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea. Kontratua sinatu aurretik egiaztatu beharko da alderdi hori, enpresak egiten duen osasun azterketa gainditutа.

g) Gaitasuna: Zigor-espedientearen bidez, edozein Herri Administrazioko zerbitzutik edo Komunitate Autonomoetako organo konstituzional edo estatutarioetako zerbitzutik baztertua ez izatea, eta ebazpen judizialaren bidez enplegu edo kargu publikoetan aritzeko erabateko gaitasungabezia edo gaitasungabezia berezia ezarria ez izatea, lanbidean sartzeko, edo antzeko funtzioak izateko. Beste Estatu batekoa bada, gaitasungabetua ez izatea edo antzeko egoeran ez egotea, eta bere Estatuan bere lanbidean aritzetik baztertzen duen diziplina-zigor, zigor penal edo antzekorik ez izatea.

Baldintza horiek baztertzaileak dira, eta horrenbestez, hautagaiek bete egin beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik eta betetzen jarraitu prozesuaren amaiera bitarte, egiaztatu behar diren prozeduraren fasearen kalterik gabe.

II. Condiciones de las personas aspirantes.

Para ser admitido y, en su caso, tomar parte en este proceso selectivo, serán requisitos necesarios:

a) Nacionalidad: tener nacionalidad española o la de cualquier otro Estado miembro de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.

También podrán tomar parte el cónyuge de los españoles y de los nacionales de otros Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no estén separados de derecho.

b) Titulación: Estar en posesión de alguna de las titulaciones solicitadas en la base I, o haber abonado los derechos para su obtención. En el caso de titulaciones extranjeras deberá estarse en posesión de la credencial que acredite su homologación.

c) Carnet de conducir: estar en posesión del carnet de conducir tipo «B», en vigor.

d) Habilidades requeridas:

— Habilidades de liderazgo, trabajo en equipo y comunicación: al ser líder de un equipo, es fundamental que motive a sus empleados hacia el logro de los objetivos, sepa definirlos, logre comunicarlos para garantizar su comprensión e incentive el trabajo en conjunto generando sinergias.

— Pensamiento analítico y resolutivo: tener la capacidad de analizar y tomar decisiones en situaciones críticas o difíciles, incluso bajo presión, ofreciendo soluciones que impulsen los resultados. Capaz además de identificar problemas potenciales y presentar propuestas concretas de solución, tomando decisiones basadas en la analítica de datos objetivos.

— Habilidades técnicas y de gestión: se requieren habilidades en lo referido a eficiencia operativa y optimización de procesos, la planificación, organización, coordinación, ejecución y control de los proyectos, la gestión del presupuesto asignado, incluso el cumplimiento de objetivos.

— Capacidad de negociación para llegar a acuerdos beneficioso para las partes mediante el convencimiento, alcanzando soluciones ante diferentes conflictos y consiguiendo la generación de relaciones duraderas a largo plazo.

e) Euskera: se deberá acreditar estar en posesión de título acreditativo de nivel B2 del marco europeo o equivalente, o disponer de los niveles de comprensión, habla y escritura correspondientes a dicho nivel mediante la superación de la prueba que a tal efecto se realizará en el marco del presente proceso.

f) Capacidad funcional: poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas del puesto. Este extremo habrá de acreditarse con carácter previo a la suscripción del contrato, mediante la superación del oportuno reconocimiento médico de la empresa.

g) Habilitación: no haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso a la profesión o para ejercer funciones similares. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o en situación equivalente ni haber sido sometido a sanción disciplinaria, penal o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el ejercicio de la profesión.

Estos requisitos son excluyentes, sin perjuicio de lo dispuesto de manera específica en el punto d), por lo que las personas aspirantes deberán reunir los mismos antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes y mantenerlos hasta el final del proceso, sin perjuicio de la fase del procedimiento en que hubieran de proceder a su acreditación.

EK\CV GAO-I-2026-00086

Aurrekoez gainera, aukeratutako hautagaiek ondoko baldintza hau bete beharko dute oinarri hauek gai duten lan harremana formalizatzeko unean:

h) Langabezia egoera: Legezko langabezia egoeran egongo da edota halako gisa izena emana izan behar du dagokion Enplegu Bulego Publikoan (Lanbide).

III. Eskariak aurkeztea.

Oinarri hauei I. eranskin gisa erantsitako eredu ofizialean aurkeztuko dira eskabideak. Eredu hori sozietatearen webgunean ere eskura daiteke (www.txinzer.eus). Eskabide horrekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira prozesuan onartua izateko:

1) NANren edo pareko identifikazio dokumentuaren fotokopia.

2) Aukeratze prozesu honetan parte hartu ahal izateko eskatzen den ikasketa tituluaren fotokopia. Atzerriko titulazioen kasuan, Espainian homologatuta daudela egiaztatzen duten dokumentuak ere aurkeztu beharko dira.

3) Euskararen ezagutza egiaztatzen duten tituluak edo ziurtagiriak.

4) Lanbide-esperientzia: hautaketa-prozesuan izandako lanbide-esperientzia merezimendu gisa balioesteko, interesdunek zerbitzuak aurkeztu diren enpresaren edo administrazioaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, lanpostua, kontratuaren/izendapenaren iraupena, lanbide-kategoria eta betetako eginkizunak eta zereginak zehaztuta. Enpresa pribatuen ziurtagiriekin batera, lan-kontratuen eta lan-bizitzaren fotokopiak aurkeztu beharko dira.

Interesdunak ziurtagiri horiek lortzeko zailtasun berezirik ez badu edo halakorik badu, horren ordez, II. eranskineko zinpeko aitorpena bete eta sinatu ahal izango du. Bertan, kontratuaren iraupena, dedikazio-ehunekoa, lanbide-kategoria eta betetako eginkizunak zehaztuko dira, eta lan-kontratuen eta lan-bizitzaren fotokopiak ere aurkeztu beharko dira.

Azkenean hautatutako pertsonak ez baditu aurkezten enpresaren edo administrazioaren jatorrizko ziurtagiriak, non lehen adierazitako datu guztiak zehazten diren, horiek aurkezteko eskatuko zaio hautaketa-batzordeak izendapen-proposamena egin baino 5 egun baliodun lehenago.

Errekerimendu horri garaiz eta behar bezala erantzuten ez bazaio, edo ziurtagiriak ez badu zehatz-mehatz islatzen interesdunak eskabidean adierazitakoa, hautapen-prozesutik kanpo geratuko da, eta azken fasean puntuazio handiena lortu duen zerrendako hurrengoarekin jarraituko da.

Era berean, kanpoan geratuko dira Hautaketa Batzordeak datu faltsuak edo zehaztugabeak egiaztatu dituen hautagaiak.

5) B gidabaimenaren fotokopia.

Eskariak sozietateko Zuzendari-Gerenteari zuzenduko zaizkio, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte baztertuak ez izateko:

A) Bigarren Oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela azaldu beharko dute hautagaiek, eskariak aurkezteko epea amaitzen den egunari begira betiere.

B) Era berean, merituen fasean baloratu beharreko datuak adierazi beharko dituzte, haiek egiaztatzeko dokumentazioarekin batera. Prozesuaren fase honetan aski izango da fotokopiak aurkeztea eta ez da nahitaezkoa enpresaren ziurtagiriak aurkeztea. Dokumentu ofizialean espazio arazoak baldin badaude, dokumentazio osagarri gisa aurkeztu ahal izango dute kurrikuluma.

Además de los anteriores, las personas aspirantes seleccionados deberán reunir el siguiente requisito en el momento de formalización de la relación laboral objeto de las presentes bases:

h) Situación de desempleo: encontrarse en situación de desempleo y/o inscrito como tal en la correspondiente Oficina Pública de Empleo (Lanbide).

III. Presentación de solicitudes.

Las instancias se presentarán en el modelo oficial incorporado a las presentes bases como anexo I y que se encuentra también disponible en la página web de la sociedad (www.txinzer.eus). A dicha instancia se deberá de acompañar la siguiente documentación para ser admitido al proceso:

1) Fotocopia del DNI o documento de identificación equivalente.

2) Fotocopia del título académico exigido para tomar parte en el presente proceso selectivo. En el caso de titulaciones extranjeras deberá aportarse, además, los documentos que acredite su homologación en España.

3) Títulos o certificados acreditativos de conocimiento de Euskera.

4) Experiencia profesional: para la valoración de la experiencia profesional en el proceso selectivo como mérito, las personas interesadas deberán aportar certificaciones de empresa o de la Administración en la que se hayan presentado los servicios, especificándose el puesto, la duración del contrato/nombramiento, la categoría profesional y las funciones y cometidos desempeñados. Las certificaciones de las empresas privadas, asimismo, deberán ir acompañadas de fotocopias de los contratos de trabajo y de la vida laboral.

En caso de que la persona interesada no disponga o tenga especiales dificultades para obtener los referidos certificados, podrá sustituir el mismo mediante la cumplimentación y firma de la Declaración Jurada incorporada como anexo II en la que se especifiquen la duración del contrato, el porcentaje de dedicación, la categoría profesional y las funciones desempeñadas, la cual igualmente deberá ser acompañada de fotocopias de los contratos de trabajo y de la vida laboral.

En caso de que la persona finalmente seleccionada no haya aportado los certificados originales de empresa o Administración en donde se especifiquen la totalidad de los datos anteriormente indicados, se le requerirá su aportación en el plazo de 5 días hábiles con carácter previo a la realización de la propuesta de nombramiento por parte de la Comisión de Selección.

En caso de no atender dicho requerimiento en tiempo y forma o que la certificación no refleje fielmente lo declarado por el interesado en su instancia, el mismo será excluido del proceso de selección y se proseguirá con el siguiente candidato de la lista con mayor puntuación en la Fase Final.

Serán igualmente excluidas aquellas personas candidatas cuyos datos se comprueben falsos o inexactos por parte de la Comisión de Selección.

5) Fotocopia de carnet de conducir B.

Las instancias solicitando ser admitido al proceso de selección se dirigirán a la Directora-Gerente de la sociedad, debiendo reunir los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

A) Las personas aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Base Segunda, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

B) Asimismo, deberán hacer constar los datos de experiencia profesional y acompañarán acreditación documental de los mismos en los términos antedichos. Si se dieran problemas de espacio en el documento oficial podrán añadir el currículum como documentación complementaria.

EK\CV GAO-I-2026-00086

Berariaz ohartarazten da ez direla joko eskabidean zehaztu gabeko datutzat eta/edo oinarri hauetan eskatzen diren egiaztagiriak aurkeztuta egiaztatu gabekotzat.

Prozesuaren fase honetan, nahikoa izango da eskatzen diren dokumentuen fotokopiak aurkeztea, baina, izendapen-proposamena egin aurretik, prozesuaren amaieran puntuazio handiena lortu duen pertsonak originalak aurkeztu beharko ditu, erkatzeko.

Ez dira baloratuko eskabidean zehazten ez diren edo behar bezala egiaztatzen ez diren merezimenduak.

Hautagairen batek desgaitasunen bat badu, eta, Hori dela eta, hautaketa-prozesuan kontuan hartu behar bada, eskabidean eskatu beharko ditu ariketak gainerako parte-hartzaileen baldintza berberetan egiteko behar dituen denbora eta bitartekoak, betiere horrekin probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun-maila murrizten edo kaltetzen ez bada.

Hautaketa-organoak baloratu ahal izan dezan bidezkoa den ala ez eskatutakoa ematea, izangaiak desgaitasun-maila kalifikatzeko organo tekniko eskudunak emandako irizpen tekniko fakultatiboa erantsiko du, eta modu frogagarrian egiaztatuko ditu desgaitasun-maila eragin duten urritasun iraunkorrak.

Eskariak, gainerako dokumentazioarekin batera, behar bezala beteta aurkeztuko dira «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.» sozietateko aurrezko Erregistroan, Irungo Juncal kaleko 26. zenbakian (PK 20304), 20 egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta.

Era berean, eskabideak digitalki behar bezala beteta aurkeztu ahal izango dira, erakundearen webguneko Enplegu Eskaintzak atalean www.txinzer.eus, enplegu-deialdi honen barruan, 20 egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera Posta Bulegoetan aurkeztutako eskariak «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.» sozietatearen izenean egingo dira, gutun-azal irekian Postako funtzionarioak data eta zigilua jar ditzan, aurkezteko epearen barnean eskariak ziurtatu aurretik. Horrela egiten bada soilik ulertuko da Posta Bulegoan aurkeztu ziren egunean eskariak «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.» sozietateko Erregistroan sartu zirela.

Gerta litezkeen egitatezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta. Inolaz ere ez da egitatezko akastzat joko eskaria epez kanpo aurkeztea.

Une horretatik aurrera, aukeratze prozesuari buruzko komunikazio, informazio... guztiak sozietatearen web orrian (www.txinzer.eus) argitaratutako iragarkien bidez jakinaraziko zaizkie hautagaiei, eta horrenbestez, ez da banakako jakinarazpenik egingo.

IV. Hautagaiak onartzea.

Eskaera orriak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartuen eta kanpoan geratutakoen behin-behineko zerrenda argitaratuko da sozietatearen web orrian (www.txinzer.eus). 3 egun naturaleko epea emango da zuzen daitezkeen okerrak edo akatsak zuzentzeko, zerrenda argitaratzen den egunetik aurrera kontatuta.

Erreklamaziorik egiten ez bada, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da automatikoki. Halakorik badago, Hautaketa Batzordeak onartu edo baztertuko ditu arrazoiak emanez, eta berriro argitaratuko dira.

Se advierte expresamente que no serán considerados datos no detallados en la instancia y/o no acreditados mediante la aportación de la documentación justificativa necesaria exigida en las presentes bases.

En esta fase del proceso bastará con la presentación de fotocopias de los documentos exigidos si bien con carácter previo a la propuesta de nombramiento la persona con mayor puntuación al final del proceso deberá presentar los originales para su cotejo.

No se valorarán aquellos méritos que no se detallen en la instancia o que no se acrediten fehacientemente.

En el caso de que algún aspirante posea alguna discapacidad que exija su toma en consideración durante el desarrollo del proceso selectivo, deberá solicitar en la instancia las adaptaciones de tiempo y medios que precise para realizar los ejercicios en igualdad de condiciones con el resto de participantes, siempre que con ello no se desvirtúe el contenido de la prueba, ni se reduzca o menoscabe el nivel de aptitud exigido.

A efectos de que el órgano de selección pueda valorar la procedencia o no de la concesión de lo solicitado, la persona candidata adjuntará el Dictamen Técnico Facultativo emitido por el órgano técnico de calificación del grado de minusvalía competente, acreditando de forma fehaciente las deficiencias permanentes que han dado origen al grado de discapacidad reconocido.

Las instancias, se presentarán debidamente cumplimentadas en el Registro presencial de «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.» sito en la c/ Juncal, 26 de Irun (CP 20304), dentro del plazo de 20 días hábiles contados desde el siguiente al de la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

A su vez, las instancias se podrán presentar debidamente cumplimentadas digitalmente en el apartado de «Ofertas de Empleo» de la página web de la entidad www.txinzer.eus dentro de esta convocatoria de empleo, en el plazo de 20 días hábiles contados desde el siguiente al de la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las instancias presentadas en las Oficinas de Correos de acuerdo con lo previsto en el artículo 16.4.b) de la Ley 39/2015, de 1 octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se dirigirán a «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.», en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el funcionario/a de Correos antes de ser certificadas dentro del plazo de presentación de instancias. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en el Registro de «Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.» en la fecha en que fueron entregadas en la Oficina de Correos.

Los errores de hecho que pudieran advertirse podrán subsanarse en cualquier momento, de oficio o a petición del interesado. En ningún caso será considerado error de hecho la presentación extemporánea de la instancia.

A partir de ese momento, la totalidad de las comunicaciones, informaciones, etc. relativas al proceso de selección se harán públicos en el apartado «Ofertas de Empleo» de la página web de la sociedad (www.txinzer.eus) y, por lo tanto, sin comunicaciones individualizadas de ningún tipo.

IV. Admisión de aspirantes.

